



JOSU SANTESTEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

## Alternatiba lausoa

DILETANTE honen oso noizean behineko kolaborazio txikia, gaia ere txikia –erlatiboki– duena: urriaren 25ean, Nafarroako Parlamentuak atzera bota du I-Eren (Izquierda-Ezkerra) mozio bat. Mozioan eskatzen zen kontzertaziorik ez egitea ikasleak generoaren arabera bereizten dituzten eskolekin. I-Ek, Aralarrek eta Bilduk aldeztu zuten mozioa. UPNk eta PPNk, uste izatekoa zen bezala, aurkako botoa eman zuten. PSN eta Geroa Bai abstenitu egin ziren.

Josulagunak bezalakoek ere neskak eta mutilak elkarrekin hezten dituzten garai hauetan, edonork imajina dezake zer-nolako ideologia edukiko duten neskak neskekin eta mutilak mutilekin nahi dituztenek. *Tea party* forala. Ideologia hori bera daukate Geroa Baik eta PSNk? Ideologia hori daukate Uxue Barkosek, Patxi Leuzak, Manu Ayerdik, Juan José Lizarbek?

Jakina, abstenitzeko eman zuten arrazoia ez zen ideologikoa izan, juridikoa baizik: legeak atzera-eraginik edukitzea saihestu beharra.

Hau da, Yolanda Barcinaren gobernuaren alternatiba izan nahi omen duten alderdiak ez dira gauza

izan berez hain konfliktiboa izan behar ez zen gai batean ados jartzeko. Zer gertatuko da gai gatazka-tsuak –AHT demagun, eta beste hainbat–, ukitzean? Edo, Barcinak legealdia beteko duela etsita, ditzosozko alternatiba hori egiteko lidergoa eskurtzeko lehia da benetan jokatzen dena? Zer-nolako alternatiba, baina? Bildu baztertzen duena? Zer botorekin, orduan? Arrazoi du UPNko Carlos García Adanerok, alternatiba gutxiesten duenean, publikoki orain gutxi egin duen bezala.

Badirudi PSNren eta eskuin abertzalearen (zer gutxi erabiltzen dugun “eskuin abertzalea” espresioa, ezta?) kezka nagusia probintziako indar faktikoei –OPUSi eta abarrei– mezu lasai-garria bidaltzea dela: “Lasai egon zaitezke, serioak gara, Diputazioa iritsiz gero ez dugu ezer hankaz gora jarriko”.

Eta horrekin batera, azpiko mezu gisa-edo, gizarteari helaraz-

*Barcinaren gobernuaren alternatiba izan nahi omen duten alderdiak ez dira gauza izan berez hain konfliktiboa izan behar ez zen gai batean ados jartzeko*

ten zaiona da, aldarrikapenak aldarrikapen, alternatiba gordin-gordin dagoela; edo, are, egiazko edozein aldaketa ezinezkoa dela. Salbu eta, poltronak beteko dituzten ipurdiena, noski. ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

## Zor etikoa

EKONOMIA FIKZIOA modan dago, eta politika fikzioa ere boladako bihurtzen ari da, bereziki bere baloreen merkatua, adibidez etika espainola.

Ekonomia fikzioa zer izan zitekeen Bolivian ikasi nuen, kanpo zorrarena esplikatu zidatenean. Boliviako Gobernuak prestatu zioten dirua halako lau itzulia omen zien lobby europarrei, eta hala ere sekula baino gehiago zor omen zuen, tartean interes tasak.

Interes traza berdina du zoru etikoa asmatu zuenak. Bide batez esanda, aski metafora txarra, ez ote litzateke hobea zoru horri u bat kentzea? Organo berri

bat azaldu baita hemen, EBZ, Frankfurtuko haren antzekoa, baloreen merkatua bere interesen arabera darabilena, eta guk etikarekin zor handi bat dugula esan du, eta bera hartzekoduntzat autoizendatu, bera baita EBZ, Etikaren Banku Zentrala. Eta guk delinkuente aurpegia jarri eta ordaintzeari ekin diogu.

Baina nago Boliviari gertatu zitzaiona gertatuko ote zaigun, zorra lau bider ordaindu eta hala ere zorretan segi, banku zentral hori politika fikzioaren asmazioa baita, eta bereziki fikziozkoa haren etika. ■

